

EGOERA ZAURGARRIAN DAUDEN PERTSONAK NAFARROAN ERROLDATZEKO IRIZPIDEAK BATERATZEKO JARRAIBIDEAK

Zenbait erakundek zaurgarritasun egoera berezian dauden pertsonak erroldatzeko irizpideak bateratuko dituen dokumentu bat egiteko beharra adierazi dute.

Horri loturik, Nafarroako Arartekoak AO23/2 espedientean Iruñeko Udalari egindako gomendioa aipatu behar da bazterkeria egoeran eta etxegabe dauden pertsonak edo infraetxeetan bizi direnak edota etxebizitzaren edo logela alokatuen jabeek ezarritako oztopo edo baldintzatzaile bidegabeak jasaten dituzten pertsonak erroldatzearekin loturik. Txostenak honakoa gomendatzen du:

- a) Pertsonen erroldatzea bidegabe eragozten edo baldintzatzen duten adierazitako jabeen kasuetarako irtenbideak bilatzea, erroldatzea ahalbidetzeko eta bizilekuen errealitatea islatzeko. Proaktiboa izatea "ofiziozko alta" deiturikoa erabiltzerakoan; nolahi ere, udalak beharrezkoak diren egiaztapenak egin ahalko ditu.
- b) Barne irizpide orokor batzuk lantzea (beste erakunde batzuen koordinazioa bilatzeko aukera ere zabalik utzita) egoera berezietan dauden pertsonak, etxegabe daudenak edo infraetxeetan bizi direnak erroldatzeko, erabakiak hartzerakoan koherentzia eta diskriminaziorik eza bermatuz eta, horretarako, bazterkeria egoeran dauden pertsonak artatzen dituzten gizarte erakundeen parte-hartzea ere kontuan harturik. Horretaz gain, zalantzak zor ditzaketen kasuetan ere interesduna erroldatzearen aldeko erabakia hartzea haren eskubideak bermatze aldera.
- c) Neurriak hartzeko aukera hausnartzea adierazitako egoeren inguruko dokumentazio eta erregistro handiagoa edukitzeko (erroldatze-eskaerak, ukatzeak, jabeen aldetik eragozpenak, jabeen baimenarekin erroldatzeko aukera ez duten kasuetarako beste irtenbide batzuk bilatzea etab.). Nolanahi ere, erroldatze-ezeztapen kasuak, halakorik balego, idatziz jasotzea gomendatzen du Arartekoak, interesdunei erabaki hori aurkaratzeko dituzten bideak adieraziz.

Era berean, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak erroldatzeei buruzko protokolo komun bat egiteko proposatu zion Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioari, adierazitako egoera berezietan dauden pertsonak erroldan sartzeko aukera izan dezaten.

ARAU-ESPARRUARI BURUZKO AIPAMENAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 15. artikulua espresuki ezartzen du Espainian bizi den pertsona orok duela ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan inskribaturik egoteko betebeharra.

Legeak ezarritako betebeharrak horri men eginez, Toki Erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugaketaren Erregelamenduaren 59.2 artikulua xedatzen duenari jarraiki udalek, udal erroldaren kudeatzaileak diren aldetik, herritarrek inskripzioa egiten duten unean emaniko datuen egiazkotasuna egiaztatu ahaliko dute horretarako nortasun agiri nazionala, Europar Batasuneko herritar erregistroaren ziurtagiria, atzerritarraren txartela, pasaporte, familia liburu edo jaiotza partida, etxebizitza okupatu izanaren ziurtagiria edo antzeko beste dokumentu batzuk eskatuz.

Era berean, honako beste ebazpen hau ere kontuan hartu behar da: 2020ko apirilaren 29ko ebazpena, Idazkariordetzarena, ebazpen hau argitaratzen duena: Ebazpena, 2020ko otsailaren 17koa, Estatistikako Institutu Nazionalaren Lehendakartzarena eta Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiarena, Udalentzako udal-erroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoak ematen dituenak. Ebazpen horretako 2.3 atalaren bizilekuaren helbidea egiaztatze dokumentazioari dagokionez ezartzen du udal kudeatzaileak beste bide batzuetatik (polizia txostena, zerbitzuak berak egindako ikuskaritza, eta abar) egiaztatu ahaliko duela herritarra benetan helbide horretan bizi den eta, hala bada, Erroldan inskribatuko duela.

Horrekin loturik kontuan hartu behar da, halaber, Errolda Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak behin eta berriro adierazi duen moduan, Erroldaren helburua egintza bat jasota uztea dela eta, beraz, herritarrek helbide horretan bizitzeko izan ditzakeen edo izan ez ditzakeen eskubideek ezin dute egintza hori desitxuratu. Halaber, egintza egiaztatze ziurtagiria egitetik erator daitezkeen eskubideek ere ezingo dute egintza hori desitxuratu. Hori dela eta, udalek helbide batean ohiko bizilekua behar bezala egiaztatzen dutenean, ezingo da erroldan inskripzioa ukatu; nolana ere, ekintza horrekin ez zaio inolako normaltasunik edo zilegitasunik ematen horretarako gaitzen duen titulu juridikorik gabe higiezin egoteari, ez eta bestelako ezein erabilera- eskubideri ere.

Adierazitako Ebazpenak, 3.3 atalean honakoa ezartzen du: Erroldak udalerriko herritar bakoitzaren benetako helbidea islatu behar du. Errolda-inskripzioa etxebizitzaren gaineko titulartasunari buruzko gorabehera juridiko-pribatuekiko independentea da eta hala da ere bai bizilekuaren egoera fisiko, higieniko-sanitarioekiko edo beste motatako egoerekiko.

Horrenbestez, infraetxeak (txabolak, karabanak, kobak eta abar eta guztiz etxegabe egotearen egoerak) Erroldan bizileku gisa agertu ahal eta behar dira. Ebazpenak, bestalde, honakoa dio muturreko egoeretan "itxurazko bizileku" bati heldu behar zaion egoeren inguruan:

Muturreko egoerek zalantza zor dezakete Udal Erroldan egon behar diren edo ez erabakitzerakoan. Erabaki hori hartzeko, kontuan hartu behar da erroldatua inskribaturik dagoen helbide horretara jakinarazpen bat igortzeko aukera dagoen edo ez. Jakinarazpena hartzailearengana iritsi ahal izatea espero badaiteke, erroldan izena emango zaio. Irizpide hori egoki aplikatzeko, batetik, bizileku gisa herritarrak benetan bizi diren edozein helbide ontzat hartu behar da eta, bestetik, "itxurazko helbide" bat erabili beharko da udalerrian bizi ohi diren etxerik gabe dauden pertsonen kasuan, Gizarte Zerbitzuek horiek ezagutzen dituztenean.

Kasu horietan, eta araudiak "ohiko bizileku" gisa zer ulertzen den zehazten ez duenez, udalak irizpide ezberdinak erabiltzen ari dira. Hori dela eta, irizpideak bateratzea gomendagarria da.

Azaldutakoa kontuan harturik, honako dokumentu honen asmoa da bizi diren tokian erroldatzeko zailtasunak dituzten pertsonen eta etxegabe edo bizilekurik gabe daudenen kasuei heltzea eta irizpide batzuk ezartzea udalek pertsona horiek erroldatu behar dituztenean orientabide gisa erabili ahal izateko, eta erroldatze soziala edo itxurazkoa egiteko prozedurak bateratzeko.

Dokumentua Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, Iruñeko Udalak eta Nafarroako Foru Komunitateko beste udal batzuek eraturako lantalde batean jorratu da eta aipatu Federazioko Batzorde Batearazleak baliozkotzat jo du 2024ko azaroaren 19an.

Egoera berezietan dauden pertsonak(e)ko Udalean erroldatzeko, honako irizpideak erabiliko dira:

1. BIZILEKUA IZANIK ERROLDATZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK:

Batzuetan, bizileku jakina duten pertsonak ezin dute erroldatzea etxebizitza horretan egin, bertan benetan bizi direnik ezin dutelako frogatu. Jabearen edo errentariaren baimenik ez duten pertsonen kasua edo antzeko egoeretan daudenena izango litzateke. Egoera horietan, erroldatzea egiteko bi bide egongo dira:

- 1.1. Pertsonak jabearen edo errentariaren baimenik ez badu ere erroldan alta eman nahi badu, adierazitako helbidean bizi dela egiaztatu ahalko da etxera gutun bat igorrita, jaso izanaren adierazpenarekin. Gutuna jasotzen badu, helbide horretan bizi dela egiaztatutzat joko da eta erroldan izena emango zaio.
- 1.2. Gutun ziurtatuaren metodoa egokitzen edo gomendagarritzat jotzen ez den kasuetan, txosten baten bidez lortu ahalko da erroldatzea. Txosten hori udaltzaingoek egin ahalko dute eta pertsona horien bizilekua egiaztatuko dute. Udaltzaingoek egiaztapena beharrezkotzat jotzen ez den kasuetan, benetakoa bizilekua ziurtatzen bada, aipatu txostena Udaleko Gizarte Langile baten bidez egin ahalko da horrek kasua ezagutzen badu eta pertsona hori toki edo helbide horretan bizi dela egiaztatu ahal badu. Gizarte Langilearen figura teknikoak aurrez aurreko bisita egin ahalko du egokitzen joz gero baina ez da ezinbestekoa izango.

2. BIZILEKURIK GABE EGONIK UDALERRIAN ALDEZ AURRETIK ERROLDATURIK EGON EZ DIREN PERTSONAK ETA BIZILEKUA IZANIK ERROLDATZEKO BAIMENIK EZ DUTEN PERTSONAK (ERROLDATZE SOZIALA EDO ITXURAZKOA):

Bizilekurik ez duten pertsonak (kalean, ibilgailuetan, infraetxeetan, txaboletan eta abarretan bizi direnak) bai eta bizilekua izanik aurreko atalean zehaztutako bideak erabili ezin dituzten pertsonak ere honako irizpideen arabera erroldatuko dira:

- 2.1 Itxurazko erroldatzea edo erroldatze soziala egitea udal bakoitzak zehaztuko duen zerbitzu zentralizatu batean: herritarren arretarako bulegoetan, erroldatze-bulegoetan, gizarte zerbitzuetan eta abar. Erroldatze soziala edo itxurazkoa eskatzen duen pertsonak bulego horietan egingo du eskaera. Eskaerarekin batera, haien ohiko bizilekua frogatzeko beharrezkoa ikusten duten dokumentazioa eta informazioa aurkeztu edo frogatzeko bideak proposatu ahalko dituzte. Esaterako, osasun zerbitzuetan edo gizarte zerbitzuetan jasotako arreta zerbitzuak, egin dituzten formakuntzak, elikagaien bankuaren erabilera eta abar.

- 2.2 Behin eskaera eginda, Gizarte Zerbitzuetara bideratuko da. 2020ko apirilaren 29ko Ebazpenari jarraiki, Gizarte Zerbitzuek txosten bat egin beharko dute; nahitaezkoa izango da baina ebazpena eman behar duen organoarentzat ez da loteslea izango.

Txosten hori egiteko ofiziozko egiaztatze-sistema bat sortuko da edo bestelako bideak gaituko dira erroldatzea eskatu duen pertsona lehenengo hiru hilabeteetan udalerrian ohikotasunez benetan bizi izan dela dioen irizpidea betetzen duela ziurtatzeko eta frogatzeko.

Egiaztapenak egiteko, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako lantaldeak baliatu ahalko dira edota bestelako baliabideak; hala nola, gizarte erakundeak, figura boluntarioak, funtsezko eragileak edo udaltzaingoak. Horiek pertsonaren bizilekura joan ahalko dira hamabost egunean behin. Bizilekua ziurtatzeko erabili ahalko dira, halaber, gizarte zerbitzuetan edo osasun zerbitzuetan jasotako arretak, egindako formakuntzak, elikagaien bankuaren erabilera bai eta pertsona eskatzaileak eman eta justifikatu ahal duen beste edozein informazio ere.

- 2.3 Ohiko bizilekua egiaztatu ondoren, erroldatze soziala edo itxurazkoa egingo da eskaera egin zuen egunetik aurrera. Gizarte Zerbitzuek egindako txostenean zehaztuko da zein helbidetan emango zaion izena erroldan; Gizarte Zerbitzuetan bertan, udaleko edozein eraikinetan edo udal bakoitzak egoki ikusten duen tokian.

- 2.4 Erroldatze soziala edo itxurazkoa eduki bitartean, pertsona hori udalak zehaztuko duen bulegora joan beharko da edozein jakinarazpen ofizial jasotzeko. Ez da beharrezkoa izango jakinarazpenak interesdunari iristen zaizkiola bermatzea. Hala ere, jakinarazpenak eraginkortasunez iristea ahalbidetzeko, erroldaturiko pertsona dagokion bulegoan aurkeztu beharko da jakinarazpenak dauden edo ez ikusteko, gutxienez, egunean behin, salbu eta justifikaturiko arrazoiren bat baldin badu.

Jakinazpenak jasotzen badira, ahal izanez gero, pertsonari horren berri emango zaio eta harekin harremanetan jartzea lortzen bada, dagokion bulegoan aurkeztu beharko da gehienez ere astebeteko epean.

3. BIZILEKURIK GABE EGONIK UDALERRIAN ALDEZ AURRETIK ERROLDATURIK EGON DIREN PERTSONAK (ERROLDATZE SOZIALA EDO ITXURAZKOA):

Bizilekurik ez duten pertsonak (kalean, ibilgailuetan, infraetxeetan, txaboletan eta abarretan bizi direnak) bai eta bizilekua izanik lehenengo atalean zehaztutako bideak erabili ezin dituzten pertsonak ere honako irizpideen arabera erroldatuko dira:

- 3.1. Erroldatze soziala edo itxurazkoa egitea udal bakoitzak zehaztuko duen zerbitzu zentralizatu batean: herritarren arretarako bulegoetan, erroldatze-bulegoetan, gizarte zerbitzuetan eta abar. Erroldatzea eskatzen duen pertsonak bulego horietan egingo du eskaera. Eskaerarekin batera, haien ohiko bizilekua frogatzeko beharrezkoa ikusten duten dokumentazioa, informazioa aurkeztu edo frogatzeko bideak proposatu ahalko dituzte.
- 3.2. Udalerrian berriki erroldaturik egon badira edo azken erroldatzetik denbora igaro bada baina udalerrian hiru hilabete baino gehiago etenik gabe egon direla ziurtatu ahal bada edo frogatutzat jo ahal bada, ohikotasuna frogatutzat joko da eta zuzenean lortu ahalko dute erroldatze soziala edo itxurazkoa. Gizarte Zerbitzuek egindako txostenean zehaztuko da zein helbidetan emango zaien izena erroldan; Gizarte Zerbitzuetan bertan, udaleko edozein eraikinetan edo udal bakoitzak egoki ikusten duen tokian.
- 3.3. Erroldatze soziala edo itxurazkoa eduki bitartean, pertsona hori udalak zehaztuko duen bulegora joan beharko da edozein jakinarazpen ofizial jasotzeko. Ez da beharrezkoa izango jakinarazpenak interesdunari iristen zaizkiola bermatzea. Hala ere, jakinarazpenak eraginkortasunez iristea ahalbidetzeko, erroldaturiko pertsona dagokion bulegoan aurkeztu beharko da jakinarazpenak dauden edo ez ikusteko, gutxienez, egunean behin, salbu eta justifikaturiko arrazoiak badaude.

Jakinazpenak jasotzen badira, ahal izanez gero, pertsonari horren berri emango zaio eta harekin harremanetan jartzea lortzen bada, dagokion bulegoan aurkeztu beharko da gehienez ere astebeteko epean.

4. BESTE OHAR BATZUK:

- Ibiltaritza egoeran dauden pertsonen zuzenduriko programak (aterpeak) dituzten udalen honako hau kontuan hartu beharko dute: pertsona horiek ezingo dute erroldatze soziala edo itxurazkoa eskatu programa horietan artatuak diren bitartean. Programa horietako prozesuak amaitzen dituztenean udalerrian finkatzea erabakitzen badute, eskaera egin ahalgo dute eta ohikotasuna frogatzeko bidea hasi.
- Pertsona batek jakinarazpenak dituen egiaztatze ezarritako gutxieneko epean aurkezten ez bada edo alde zuzenetik jakinarazpenak dituela adierazi bazaio eta astebeteko epean aurkezten ez bada, baja eman ahalgo zaio azken bisitatik hilabete bateko epean, salbu eta justifikaturiko arrazoiak badaude. Bertaratzea kontrolatzeko sistema bat ezarriko da horretarako. Era berean, interesdunak dagokion bulegoari jakinarazi beharko dio denbora batez kanpoan egon behar badu.
- Gomendagarria da udalean barne batzorde bat sortzea dokumentu honetan jasotako irizpideei jarraiki erroldatutako kasu bereziak baloratzeko. Era berean, NUKFrekin batera osatutako lantaldeari sor daitezkeen bestelako egoera edo arazo berri eman ahalgo zaio tratamendu bateratua eta homoginoa lortze aldera eta honako dokumentu hau dinamikoa izateko eta egoera horietara egokitu ahal izateko.
- Ohikotasuna ez frogatzeagatik edo egoki ikusten diren beste arrazoi batzuegatik erroldatzea ukatzen denean, idatziz jakinarazi beharko da, arrazoiturik eta erabakia aurkaratzeko bideak adierazi beharko zaizkie kaltetuei.

ERANSKINAK (DOKUMENTU EREDUAK)

- I. eranskina. Gizarte Zerbitzuetako txostenaren barne jakinarazpena.
- III. Eranskina. Herritarraren konpromisoa.
- III. Eranskina. Herritarra aurkeztu izana egiaztatze agiria.

I. ERANSKINA

GIZARTE ZERBITZUETAKO TXOSTENAREN BARNE JAKINARAZPENA

..... jaun/andrea helbidean (helbide soziala edo itxurazkoa adierazi) erroldatzeari dagokionez, Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek honakoa jakinarazten dute:

- Txosten sozialaren arabera, pertsona hori udalerrian bizi da eta ez du erroldatzeko aukerarik.
- helbidean (helbide soziala edo itxurazkoa adierazi) erroldatzea ontzat jotzen da eta helbide hori erroldarako eta jakinarazpenetarako erreferentziazko helbidea izango da.

.....(e)an,(e)koaren(e)an

Stua.:

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

II. ERANSKINA

HERRITARRAREN KONPROMISOA

Nik, jaun/andreak, NAN/ Pasaporte zenbakidunak, eta bizilekua(e)n duenak, Gizarte Zerbitzuek nire erroldatzea helbidean (helbide soziala edo itxurazkoa adierazi) egitea proposatu dutela jakinik, udal bulegoetan (adierazi zeinetan) egunean behin aurkezteko konpromisoa hartzen dut helbide horretara iritsi ahal zaizkidan gutunak/jakinarazpenak hartzeko.

.....(e)an,(e)koaren(e)an

Stua:

Interesduna

III. ERANSKINA

HERRITARRA AURKEZTU IZANA EGIAZTATZEKO AGIRIA

Nik, jaun/andreak, NAN/ Pasaporte zenbakidunak, eta bizilekua(e)n duenak eta helbidean (helbide soziala edo itxurazkoa adierazi) erroldaturik egonik, adierazitako udal bulegoetan aurkeztu naiz gutunak/jakinarezpen ofizialak hartu eta erroldaturik jarraitzeko.

.....(e)an,(e)koaren(e)an

Stua:

Interesduna